

Hitzordua, Plaza Barrian

Loli Astoreka aktoreak Euskaltzaindiko balkoitik botako du pregoia, 19:00etan

Plaza Barria. Arratsaldeko zazpiak bost gutxiago. Aste Nagusia has-tear dago. Algara eta astrapala franko eta inork ez daki ondo zergatik. Zelan diozu? Antza denez, udaletxetik datozen Marijaia eta Jai Batzordea heldu dira. Euskaltzaindiko alboko ate txiki batetik gorantz doa segizioa.

Agertokian daukagun txar-rangak ez dio musikari utzi azken orduan, jauzi-jauzika, txapligua entzuteko irrikan gaude. Hemen geldi dauden bakarrik erraldoi eta buruhandiak dira.

Euskaltzaindiko balkoiko atea blaust zabaldu dira; bai, baten bat ageri da orain. Marijaia! Marijaia! Marijaia da! Gora Marijaia!

Balkoian Marijaiak handiago ematen du eta behean dauzkan erraldoiak txikiago. Marijaia ez dator bakarrik. Pregoiaria, jaka beilegiagaz eta kapela lumadunagaz, hantxe dago tente, plazan gaudenok agurtzen, irribarrez. Loli Astoreka ei da, antzezlea. Kontua hastear dago, hori seguru, txaranga isildu da, eta balkoian daudenak urduri daudela ematen du.

Niri segundotik segundora luzeagoa egiten zait itxaronaldia. Albokoak ez dira gelditu. Batek goitik behera busti nau xanpainez, eta hori oraindino jaiak ez duela eztanda egin. Globoak eta baloitzarrak eskutik eskura dabilta. Balkoira begiratzen ahalegindu arren inguruan dauzkadan konpartsakide eta lagunak ez dira gelditu ezta instante batean ere. Oraingoan xanpaina burutik behera jaurtiki beharrean edateko eman didate, esker-rak.

Aurten ere berdin. Ez dakit



JOSU ETXEBARRIOSTE



Jende ugari parte hartzen du jaien hasierako ekitaldian. Plaza Barria bete egiten da.

nola aukeratzeko duten txupinera, baina seguru konpartsa txikiak dela. Balkoian justu-justu ageri da, jaka eta txapela gorri jantzita.

Minutu bat, minutu bat oraindik. Txarangaren ordezkariak daude ohol-tza gaine-

an. Jendea ez da behin ere gelditu. Eta zer egin behar dut nik? Hau zoramen!

Aldamenean telebistako kamerak eta argazkilariak artega dabilta. Minutu erdia bakarrik falta da. Kostatzen zaio Aitziber Zalbide horri su ematea bolanderari. Badirudi...

di... Orain bai. Seguru. Orain badoa. Badoa, badoa, ssshhhtchpun!!!

«Aste Nagusia bakarrik dago hamar gaueko munduan. Mari, Mari Marijaia dator, Mari, Mari Marijaia dator... Uger, uger Bilboko uretan...».

Badator Marijaia!

Aste Nagusia bakarrik dago hamar gaueko munduan. Abuztuan Bilbon denok kalera katuak eurak be jaietan. Mari, Mari, Marijaia dator Mari, Mari, Marijaia dator. Uger, uger, Bilboko uretan Mari, Mari, Marijaia dator. Abuztuan danok zahar eta gazte gizon eta andre jaietan Zapia lepoan alkar hartuta kolore guztiak dantzetan. Goxa eta erlojua ez ei doaz batera bata edo bestea zoratu egin da. Hara hara hara hara hara hara hara hara hara hara gure Marijaia. Ene ene ene oi ai ene bada aste hau pasata berriro joango da. Marijaia bera gure Marijaia Bilbora etorri da Aste Nagusia. Aste Nagusi bakarrik munduan bakarrik munduan Marijaia.

Hitzak: Edorta Jimenez

Doinua: Kepa Junkera

jaietan gozatu, euskara bultzatu!

eguzki
zaleak

